

## IKASLARIN osasun zerbitzuaren protokoloa

### ESKOLA ASEGURUAREN LAGUNTZA MEDIKOA IKASTETXE ETA GURASO ELKARTEENTZAT (IGEak)

#### 2018/19 IKASTURTEA

1.- Orokortasunak.....	2 orr.
2.- Ordutegia eta prozedurak .....	3 orr.
2.1.- Goizeko gela	
2.2.- Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 19:00 arte	
2.3.- Astelehenetik ostiralera 19:00 etatik aurrera	
2.4.- Larunbatak eta igandeak	
3.- Hitzartutako osasun zentroak .....	5 orr.
4.- Irteerak eta udalekuak .....	5 orr.
5.- Dentistak .....	5 orr.
6.- Betaurrekoak .....	5 orr.

## 1.- OROKORTASUNAK

IKASLARIN ikastetxeetan **laguntza medikoa** ematen duen zerbitzu mediko pribatu bat da. Asteleheneretik ostiralera goizeko 09.00etatik arratsaldeko 19.00etara ematen du, IGEek edo eskolek antolatutako jardueretan.

IGEak edo Eskolak antolatutako Eskola Kirola jarduerak (larunbata-igandea) ere aseguruaren barne daude.

### **IKASLARIN S.L. ez da larrialdietarako zerbitzua, osasun laguntzako zerbitzua baizik.**

Ikastetxeetan istripuak gertatuz gero soilik arreta emango zaie haurrei. Inolaz ere ez zaie arreta emango ohiko gaixotasuna dutenei.

Osasun laguntza Ikastetxeak edota IGEko arduradunek soilik eskatuko dute eta ez ikaslearen familiak. Hauek, izatekotan, ikastetxeari edo IGEari gertatutako istripuaren berri emango diote.

Osasun laguntza ikastetxe berean izango da kurtso hasieratik (iraila) kurtso amaiera arte (ekaina).

Zauritutako ikaslea heldu batek lagunduta egon beharko da laguntza medikua jasotzean emango zaion informazioa modu egokian jaso ahal izateko.

Ikaslarineko laguntza medikua jaso ostean hurrengo egunetan egoera ez bada hobetzen, berriro deitu beharko da Ikaslarinera beste kontsulta bat eskatzeko.

**Aseguru etxeak ez du hartuko lekualdaketen edo Osasun Zentro Publikoetan (OSAKIDETZA) izandako gastuen ardura eta ikaslearen familiaren ardurapean geratuko dira, osasun txartela erabiliz edo zuzenean ordainduz.**

### **LEKUALDAKETAK**

IKASLARINeko medikuak erabakiko du ikaslea aholkatutako zentzora joan beharko den ala ez, bestelako kalteak baztertzeko. Familiak, legezko tutoreak edo ikastetxearen arduradunak eramango du ikaslea, medikuak ikastetxean egindako txostena klinikara eramaten.

### **IKASLARIN izango da beti ikaslea osasun zentzora lekualdatzea erabakiko duena.**

**Premiazko lekualdatzea** Jasotako kalteengatik ikaslea osasun zentro batera eraman behar izanez gero anbulantziaren bidez egingo da, **112ra deituz**. Gero IKASLARIN jakinaren gainean jarri beharko da eskola aseguruan sartzeko.

**IKASLARIN (94.443.77.82 / 691 849 861 / 691 849 858)**

Ikastetxetik ospitalera taxian egindako lekualdaketak polizaren estalduratik at gertatuko dira, laguntza medikoaren bermeak ez baititu bidaiaren gastuak estaltzen.

IKASLARINeko medikuak ezingo du inondik inora ikaslea hitzartutako klinikara eraman, bideko segurtasun lege berriak zehazten duenez haur guztiak homologaturiko jesarlekuetan bidaiatu behar baitute.

Edonola ere, jesarleku hauen beharrik ez izatekotan ere, medikua ezingo da ikaslearen segurtasunaz arduratu lekualdaketan istripu bat gertatuko balitz. Beraz, **lekualdaketaren ardura adin-txikikoen tutoreek izango dute.**

## ASISTENTZIA DENBORA

Laguntza medikoa ikastetxean ahalik eta denbora laburrenean emango da.

Garrantzitsua da osasun laguntza behar duen ikaslea laguntza hau ematen ohi den tokian itxoiten egotea, beharrezkoa ez den denborarik ez galtzeko. Horretarako IKASLARINeko teknikariek esango diote ikastetxeari medikuak gutxi gora behera zenbat denbora emango du ikastetxera iristeko.

**Ikaslearen arduradunek medikua ez itxarotea eta osasun zentru batera eramatea erabakiz gero, haien irizpide jarraituz eta ezinbesteko larrialdi bat ez denean, haien ardura izango dira osasun laguntzak ekarriko dituen gastuak.**

## 2.- ORDUTEGIAK ETA PROZEDURAK

Hitzartutako klinika batera joan baino lehen Ikaslarinera deitu behar da.

**2.1.- GOIZTIARRAK / GOIZEKO GELA.** Zerbitzu honetan parte hartzen duten umeek goizeko 08:00etatik aurrera jasoko dute laguntza medikoa.

**IKASLARINERA DEITU: 944437782 / 691849861 / 691849858 / FAX: 944101007.**

**2.2.- ISTRIPUA GOIZEKO 09:00AK ETA ARRATSALDEKO 19:00AK BITARTEAN GERTATUZ GERO (ASTELEHENETIK OSTIRALERA).**

**IKASLARINERA DEITU: 94.443.77.82 / 691 849 861 / 691849858 / FAX: 944101007.**

Aurreneko bi kasuetan deia jasotzean osasun koordinatzaileak baloratuko du, honek ikastetxearekin harremanetan jarriko da eta hurrengo erabaki ahal izango du:

- **Egoera ikastetxean bertan konpondu ahal bada** medikua ikastetxera bidaliko du. Medikua ikastetxera joango da beharrezko laguntza emateko. Sendaketa bertan egingo da.

Bestelako proba bat egiteko Medikua hitzartutako osasun zentro batera eramatea erabakiz gero, ikastetxeko arduraduna familiarekin, tutoreekin edo haurraren arduradunarekin harremanetan jarriko da, eta erabakiko dute nork eta nola eramango duen haurra.

Osasun laguntza denbora egokian eman ezingo den zonaldeetan osasun zentro batera bideratuko da.

- **Ikastetxean bertan konpondu ezin bada**, istripua jaso duen ikaslea osasun zentro batera bideratuko da hurrengo irizpideak jarraituz: istripua jaso duenaren behar medikoak eta ikastetxeetatik hurbiltasuna.

**Familiak haurra edozein osasun zentrora eramango duten kasuetan, IKASLARINEKO baimenik gabe, familiak ordaindu beharko ditu gertatutako gastuak.**

**Bilbotik urrun dauden zonaldeetan** edota itxaron aldia luzatuz gero ikastetxeei erreferentzi zentro bat emango zaie haien baliabidez bertara joateko.

Justifikatutako itxaron aldia kasu zehatz hauek kenduta ikastetxe hauek jasoko duten osasun laguntza Bilbo handiko ikastetxeena bezalakoa izango da.

**Oharra:** Medikuek ez du inondik inora ikaslea eramango, nahiz eta ikaslearen istripuan gertatutako azaltzeko txosten bat egingo duen eta jarraitzeko pausuak adieraziko dituen.

### **2.3.- ISTRIPUA 19.00AK ONDOREN GERTATUZ GERO:**

Lehenago eta behin Ikaslarinera deitu istripuaren berri emateko, jarraian Ikaslea aholkatutako osasun zentro batera eramango da. (zerrenda begiratu)

**IKASLARIN: 94.443.77.82 / 691 849 861/ 691 849 858**

### **2.4. ISTRIPUA LARUNBATEAN EDO IGANDEAN GERTATUZ GERO IGEak edo ikastetxeak antolatutako eskolaz kanpoko ekintza betean**

Klinikara joan baino lehen Ikaslarinera deitu istripuaren berri emateko, horrela osasun zentroak beharrezko dituen datuen tramitazioa egin ahal izateko.

Jarraian, ikaslea aholkatutako osasun zentro batera eramango da (zerrenda begiratu), **IKASLARIN: 691849861 / 691849858**

**Bi kasuetan klinikara iristean ikaslearen datuak emateaz gain, ikastetxearen izena eta Ikaslarin-en asistentzia medikoa jasotzen duela esan behar dugu**

### **3.- OSASUN ZENTROAK**

Klinikara iristean ikaslearen datuak emateaz gain, ikastetxearen izena eta Ikaslarin-en asistentzia medikoa jasotzen duela esan behar dugu

<b>BILBAO ETA EZKUINALDEA</b>	<b>CLÍNICA GUIMÓN</b> traumatologia XXI- Manuel Allende, 24, Tel. 944215200
	<b>CLINICA VIRGEN BLANCA</b> Maestro Mendiri 2. Tel 94.4127011
	<b>IQM ZORROTZAURRE</b> Ballets Olaeta, 4. Tel. 94 475 50 00
	<b>HOSPITAL QUIRÓN BIZKAIA</b> Leioa-Umbe errepidea, 33 bis. Erandio - 902.44.55.95
<b>EZKERRALDEA</b>	<b>SAN JUAN DE DIOS KLINIKA,</b> Murrieta etorbidea, 70 – Tel 94.4939900

<b>DURANGO – AMOREBIETA</b>	<b>CENTRO GANE</b> - Gane kalea - 94.673.03.12 - Fax 94.673.04.04
<b>OROZKO - LLODIO</b>	<b>CENTRO ALAIA</b> – Zumalakarregi 3 bajo, Laudio. Tel 946 726 682
<b>BIZKAIA</b>	<b>INSTITUTO CLINICO QUIRURGICO DE OFTALMOLOGIA ICQO</b> C/ Virgen de Begoña 34 Tfno. 944733545
<b>DENTISTAK</b>	<b>MILLENIUM DENTAL INDAUTXU</b> - Calle Manuel Allende, 15. Bilbao. Tel. 94.421.20.214

#### 4.- IRTEERAK ETA UDALEKUAK

**Ikaslarin-era abisatuko zaio** zein irteera edo joan-etorri egingo diren, baita ikasle kopurua eta nora joaten diren.

**Udalekuak ikastetxean bertan egiten direnean urteko eskola aseguruaren barne sartuko dira, eta beraz, istripua izandakoan hartu beharreko neurriak aurretik aipatutakoak dira.**

**Oporraldian ikastetxetik kanpo** egiten diren jarduera guztiak aseguruaren estalduratik kanpo geratuko dira.

**Gaua ikastetxetik kanpo** pasatzea dakarten jarduerak estalduratik kanpo geratuko dira.

#### 5.- DENTISTAK

Istripuan zauritutakoak dentistaren beharra izanez gero, eman beharreko urratsak honakoak dira:

**IKASLARIN**era deitu (94.443.77.82 / 691 849 861 / 691849858) istripuaren berri eta zaurituaren datuak emateko.

Dentistaren beharra dutenek euren ohiko dentistara jo dezakete. Kasu honetan faktura aurretik ordaindu beharko da eta ondoren MGSra (Elcano Kalea 4, 48009 Bilbao) bidali ikaslearen arduradunaren NAN kopia batekin dirua berreskuratzeko (**601 €ko muga**). Hitzarturiko dentista batengana jotzeko aukera ere badago. Bertan ez da ezer ordaindu behar. Kasu honetan IKASLARIN arduratuko da zentro hauei istripuaren berri emateaz.

#### 6.-BETAURREKOAK

Istripu baten eragina eta osasun-laguntzak ekartzen dituen betaurrekoetako ustekabeko haustura sartuta (150€etarainoko polizan muga dezan)

**IKASLARINEK ADOSTU EDO IKUSKATU EZ DITUEN LAGUNTZEI EZ ZAIE ARRETARIK EMANGO**